

## **NABARRA ERREINUAREN SORRERA**

Orreaga (2005.2.2)

Nabarrako erreinua Baskoniako dukerriaren hegoaldean jaio zen: "Baskonia" hitza lurralde horretan bizi den herritik dator: euskaldunak edo "baskoiak". Baskoniako edo Wasconiako dukerria beraz, euskara mintzo zen herria mugatzen zuen: Garonatik Ebro ibairen hegoalderaino, Oka mendiak mendebaldetik eta Segre ibaia ekialdetik gutxi gorabeherako muga lez.

Ofizialki Baskoniako dukerria frankoek sortzen dute 600. urtean euskaldunak menpean hartzeko asmoaz, baina baskoien dukerria ez zen inoiz frankoengatik erabat kontrolatua izan. 660 urtetik aurrera euskaldunak benetan independenteak ziren bere buruzagiekin, euren burua Akitania-Baskoniako printzeak deitzen zutenak.

Karlomagnoekin frankoak goia jotzen duten, Mendebaldeko Erroma Inperioa jausi zenetik erregerik handiena izan zenarekin. 778 abuztuaren 15ean, musulmanen kontrako bere borrokan, Karlomagno Zaragoza hiriaren inguruketa jaiki eta arrapalada bizian bere erreinuko iparraldera abiatzen da altxamendu militar bati aurre egitera. Iruña hiria erre egiten du menperatu ezin dituen euskaldunei eskarmentua emateko, Orreagatik pasatzen denean bere gudaroste indartsuarekin, bailara estutik irteterakoan, milaka euskaldun Baskoniako dukerri independentekoak, mendi gainetik ejertzitoaren atzealdea erasotzen dute mendeku bila. Euskaldunen garaipena erabatekoa da, Bretañako gobernadorea eta Karlomagnoen loba, Roldan, hilik suertatzen da.

Karlomagnoen semea, Ludovico Pío, Dax ibaiaren hegoaldean aske bizi diren euskaldunengandik mendekatzea erabakitzen du eta Aznar eta Eblo buruzagi duen frankoen beste gudaroste bat bidaltzen du Pirinioak zeharkatzera, "ordena" berriro jartzeko. Garazi-Luzaide inguruan erasotutak dira, Ximeno, Banu Casi, Garsea eta Belasko euskal familiak dira irabazle eta lurraldea dominatzen dutenak, orduetik Nabarra deiturikoa.

Euskaldunen borondatez y gaitasunagatik, Pirinioen hegoaldean, Baskonia penintsularrean, euskal erreinu berri bat sortzen da: Iruñako erreinua geroago Nabarrakoa deiturikoa, Baskonia bitan bananduz.

Erreinua Antso Gartsezekin guztiz osotzen da (905-25), eta bere errege inportanteenarekin lurraldetasun hori konfirmatzen da: Antso III Nagusiarekin (1004-35). Antso III na arabiarren kroniketan "Euskaldunen Jauna" deitua da. Baskoniako lurralde osoa berriro Nabarrako erreinuan batzen da errege ezkontzen bidez, era naturalean eta borondate hutsez, Evreux familiekin, gero Foix eta Albert-Labritekin. Estatuak, herriek euren defentsa antolatzekeo egitura politikoak dira, baita beste herri batzuekin elkar bizitzeko ere.

Nabarrako Estatu banatua eta konkistatua izan zen armen bidez Espainagatik: 1200 urtean Nabarra mendebaldea, eta 1512-24an Nafarroa garaia.

Frantzia indarrean integratua: Nafarra Behea eta Biarno-Foix dukerria, Zuberoa eta Lapurdirekin, 1620an, orduko Inperiorik indartsuenak: askatasun eta eskubide internazionalen kontrako eraso bat izan zen, gaurko edozein inbasio militar eta indarkeriaz okupatutako edozein Estatu bat lez.

Euskaldunak Orreagan autodeterminatu ginen: gure Estatu sortu genuen.

BAINA NABAR BAKAR BATEK HALA ALDARRIKATUZ, NABARRA ESTATUAK BIZIRIK DIRAU.